


# Georges Wolinskiren pentsamentü zonbait



Ez zaüt axola bester  
gezürraren erraitea, bena  
ene bürüari erraitea  
mespretxügarri da.

Gük 68ko Maiatza egin dügü ez bilakatzeko bilakatü  
girenak



Maitarzun gabeko sexua, ez da beti erringarri...bena  
sexurik  
gabeko maitarzüna beno erringarriago da!



Senarremazte zonbaitek algarrekilan irauten düe zeren eta hala ez balitz, bereziko liratekealako eta berberak beilirate.



Maitarzünezko gaü batek hiru  
oren laurden iraiten dü.

Esküintiarra exkerreko ideiekila, sinpatiko da.

Eskertiarra esküineko ideiekila aldiz, grehügarri da.

Elektrizitatea ez zen  
sortürrik izan  
kandelaren hobetzeko.



Hor zirela ikusten dügularik, zure  
arrakastaren marka da. Ez zirela hor  
ohartzen girelarik, zure ospearen seinale da.



Bizi batetan, gazte beno, lüzazago zahar gira.



Emazte batek eijer izatea erabakitzen badü, kausitzen dü.

Ez niz nahi dūgūnaren erraiteko askatarzūnaren  
alde, bena bai dakigūnaren erraiteko  
askatarzūnaren alde



Emazteek nahiago düe  
gürekilan malerus izan, gü  
hurak  
gabe kontent izatea beno.



Behar ere, mündüa gaixki doa: ni  
ez neinte  
ontsa doan mündü batetan bizi.

Ni zozoa niz, bena jente  
« bürüargiek » müdüaz  
egin düena ikusten  
düdanean...

Nik ez düt Jinkoarengan  
sinesten, hala ere otoitz  
egiten düt,  
zer hel ere...





Astapito eraginkorra beno ez deüs argia izan nahiago niz.